

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko ekaina

Aurkibidea

1. Industria ekoizpena
2. Inflazioa
3. Kanpo merkataritza
4. Sentimendu ekonomikoa
5. Enpleguaren igurikimenak
6. Ekonomia aurreikuspenak
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. Industriaren ekoizpena %12,1 handitu zen martxoan urte arteko tasan.

Indizeak zortzi puntu inguru igo beharko du 2019ko maila berreskuratzeko.

2. Apirileko KPI indizea azken lau urteko mailarik altue- nean kokatu da.

Energia alorreko produktuen garestitzea da igoera horren erantzulea.

3. EAEko esportazioak pultsua berreskuratzen ari dira.

Lehen hiruhilekoak oso emaitza positiboa utzi du merkataritza saldoan.

4. Euroguneko sentimendu ekonomikoak hazkunde esanguratsua izan du.

Salbuespen gutxi batzuekin, herrialde europar guztiek bat egin dute baikortasun horrekin.

5. Lan merkatuari buruzko igurikimenek hobera egin dute European.

Herrialde nagusi guztiak baikorrak dira enpleguari dagokio-
nez.

6. Etorkizuneko bilakaera ekonomikoak pandemiaren mende jarraitzen du.

Txertaketa erritmoak eta mutazio berrien agerpenak etorki-
zun hurbila baldintzatuko dute.

7. Hilabeteko laburpena.

Baikortasuna itzuli da Europara




INDUSTRIA EKOIZPENA

Industriaren ekoizpena %12,1 handitu zen martxoan urte arteko tasan

INDUSTRIA EKOIZPENA GUZTIRA Urte arteko aldakuntza tasa

IPI: URTEARTEKO TASA
MARTXOAN
%12,1




Martxoan industria produkzioaren indizeak (IPI) %12,1eko urte arteko igoera jaso zuen, gutxienez azken hamabost urtean erregistratu den tasarik handiena baita. Orobat, pandemia hasi zenetik (orain dela urtebete bat) erregistratu den lehen tasa positiboa da. Beraz, industriaren sektoreak koronabirusa agertu aurreko egoerara itzultzeko pausoak ematen jarraitzen du.

2019ko ekoizpen mailara itzultzeko prozesu horretan, urtarokotasunik gabeko serieak iradokitzen du martxoan industria ekoizpena oraindik ere zortzi puntu inguru beherago zegoela 2019ko batez bestekotik (orduko indizea 112,6 puntukoa izan zen). Bestela esanda, asko hobetu da, baina oraindik tarte bat falta da berreskuratzea osatzeko.

INDUSTRIA EKOIZPENA GUZTIRA Indizea

IPI: MARTXOKO INDIZEA
104,8



KONTSUMO IRAUNKORREKO ONDASUNAK

Indizea



Oro har berreskuratze prozesua amaitu ez bada ere, ondasun mota batzuk aurreratuago daude bide horretan. Esate baterako, kontsumorako ondasunen ekoizpenak 2019ko maila gainditu du, batez ere, ondasun iraunkorrek bizi duten egoera onari esker. Aitzitik, energia alorreko ondasunek gainerako ondasunetatik oso urrun dagoen bilakaera eskaintzen dute, eta pandemia aurreko mailetatik urruntzen jarraitzen dute. Azkenik, bai ekipamendurako ondasunek bai bitarteko ondasunek zenbait puntu hobetu behar dituzte oraindik beren susperraldia osatzeko.


KONTSUMO IRAGANKORREKO ONDASUNAK

indizea



EKIPAMENDU ONDASUNAK

Indizea



BITARTEKO ONDASUNAK

Indizea



ENERGIA ONDASUNAK

Indizea




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

Apirileko KPIa azken lau urteetako mailarik altuenean kokatu da

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Prezioak %1,1 igo ziren apirilean Euskadin aurreko hilabetearekin alderatuta, beraz urte arteko aldakuntza tasa %2,5era iritsi zen, 2017ko apiriletik izandako igoerarik handiena baita. Prezioetan izandako igoera nabarmen horri argindarrak eta erregaiek lagundu zioten. Produktu horien oraingo garestitzea urrun dago 2020ko epe berean izandako jaitsieretatik.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2019	2020	2021eko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,0	-0,1	2,5	2,5
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,0	0,8	0,4	0,3
- Elikagai landuak (%16,7)	0,6	1,7	1,1	0,1
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	0,3	0,9	0,2
- Zerbitzuak (%40,2)	1,6	0,8	-0,1	0,0
Hondar inflazioa (%19,5)	0,8	-4,0	11,4	2,2
- Landu gabeko janariak (%9,5)	1,3	4,0	0,9	0,1
- Energia (%10,0)	0,4	-9,4	21,1	2,1

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Nahiz eta KPIa nabarmen igo zen argindarraren eta gasolinen garestitzeengatik, gainerako partidetan ia ez zen inolako igoerarik hauteman. Zehazkiago adierazita, erosketen saskiak prezio horien ezegonkortasuna eta pandemiaren ondorioak jasotzen jarraitu zuen. Horiek horrela, etxebizitza taldea izan zen inflaziogileena, aurreko hilabetearekin alderatuta sei puntutik gorako igoera izan baitzuen, %10,3ra iritsiz, tarifa elektrikoaren igoera handiaren ondorioz. Garraio taldeak ere lagundu zuen inflazioa gora bultzatzen, %4,2tik %7,7ra

igaro baitzen, erregaien prezioen bilakaeraren ondorioz. Izan ere, 2020ko apirilean salneurri horiek nabarmen gutxitu ziren, munduko ekonomian bizi zen geldialdiaren ondorioz. Aitzitik, elikagaiek eta alkoholik gabeko edariak gorakada horiek konpentsatu zituzten, %1,2ko aldakuntza izan baitzuten, martxokoa baino zazpi hamarren txikiagoa baita, eta aurreko urteko aldi berekoa, konfinamendu betean, baino askoz txikiagoa, garai hartan izan baitziren igoerarik handienak.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2021eko apirila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,5	2,2	1,6
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,2	0,3	0,0
Edari alcoholdunak eta tabakoa	0,1	-0,1	2,8
Jantziak eta oinetakoak	0,9	1,1	-0,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	10,3	10,0	3,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,6	0,6	0,7
Osasuna	0,9	0,6	0,0
Garraioa	7,7	7,4	5,1
Komunikazioak	-4,6	-4,6	-1,1
Aisia eta kultura	-1,5	-1,2	0,7
Hezkuntza	0,6	-0,2	0,1
Jatetxeak eta hotelak	0,1	-0,5	0,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,2	0,8	1,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

EAEko esportazioak pultsua berreskuratzen ari dira

Urtea tasa negatiboekin hasi eta esportazioak urtarilean %12,4 jaitsi ondoren, otsailean EAEko kanpo merkataritza suspertzen hasi zen (%4,7), eta martxoan goranzko joera hori sendotu egin zen, salmenten guztizkoa 2.359 milioi eurora iritsi baitzen. Kopuru horrek %39,0ko igoera ekarri zuen aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta %9,1eko hazkundera, berriz, urteko lehen hiruhileko metatutan, Eustatek argitaratu dituen datuen arabera. Bar-


neko jarduera ere gora egiten hasi zen, baina atzerapen apur batekin. Hori dela eta, martxora arte ez da lortu inportazioek hazkunde positibo berrekitzea (%18,6). Gehikuntza tasa hori handia izan arren, urtarrileko eta otsaileko erosketen aurretiko uzkurduren ondorioz, inportazio guztiak %1,3 jaitsi ziren hiruhileko balantzean. Aurreko guztiaren ondorioz, merkataritza saldoak, guztira, 1.571,5 milioi euroko superabita eman zuen.

ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro


URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA

-%9,1




INPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro




MERKATARITZA SALDOA GUZTIRA

Milioi euro




ESPORTAZIOAK ALEMANIARA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK FRANTZIARA


Urte arteko aldakuntza tasa



27 kidez osatutako Europar Batasuna izan zen berriz ere EAEko esportazioen jomuga nagusia, eta esportatutako guztizkoaren ia %64,5 bereganatu zuen, azken urteotako merkatu kuotarik handiena baita. Automobilgintzaren sektorearen susperraldiak Alemaniako salmentak bultzatu zituen (%15,6) eta, neurri txikiagoan Frantziarako salmentak ere (%9,7), metal arrunten eta haien manufakturen eskaera handiagoak ere mesede egin baitzien. Aitzitik, EAEko produktuek oraindik ez dituzte pandemiaren aurreko salmentak berreskuratu AEBetako eta Japoniako merkatuetan.


ESPORTAZIOAK ERRESUMA BATURA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK TXINARA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPORTAZIOAK AEBETARA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.




EKONOMIA SENTIMENDUA

Euroguneko sentimendu ekonomikoak hazkunde esanguratsua izan du

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

MAIATZEKO DATUA

114,5




Europako Batzordeak Europako herrialdeen sentimendu ekonomikoaren maiatzeko datuak argitaratu ditu. Estimazio berriek adierazleen bizkortze handia deskribatzen dute. Hala, Europar Batasunean eta euroaren eremuan sentimendu ekonomikoaren adierazleak (ESI) 4 puntu egin du gora apirileko datuarekin alderatuta, hurrenez hurren, 113,9 eta 114,5 puntuetan kokatu arte. Beraz, bi eremuetan finkatu egin da hobetzeko joera. Jarrera hori orokorra da EBko herrialde guztietan, Eslovakian, Txekiar Errepublikan eta Bulgarian izan ezik.

ESI indizeak hiru sektore ekonomiko nagusiak, txikizkako merkataritza eta kontsumitzaileen konfiantza barne hartzen ditu. Une hauetan epe luzerako batez besteko mailaren eta pandemia aurreko mailaren gainetik dago kokatuta. Are gehiago, 2017ko abenduan lortutako balio maximotik gertu dago. Europar Batasunean, oro har, zerbitzuen sektorearekiko konfiantza hobetu izanak ekarri du hobekuntza. Gainerako sektoreek ere (industria, txikizkako merkataritza eta eraikuntza) beren balioak hobetu dituzte, baita kontsumitzaileen konfiantzak ere.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. EUROPAR
BATASUNA

MAIATZEKO DATUA

113,9




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA



Euroguneari dagokionez, zerbitzuen sektorearekiko konfiantzak 9,1 puntuko hobekuntza nabarmena erakusten du, enpresek eskaeren aurreikuspenetan duten baikortasun handiagoari esker. Industriaren eta eraikuntzaren sektorean, hazkundeak, 0,6 eta 1,9 hurrenez hurren, egungo eskaeren balorazio positiboan oinarritzen dira. Txikizkako merkataritzako enpresariak ere baikortasun handiagoa adierazi dute, 3,4 puntu igo baita indizea, etorkizuneko igurikimenak hobetu direlako. Beste aldetik, kontsumitzaileen konfiantzak 3,0 puntu egin du gora, finantza egoera partikularrari eta bilakaera ekonomiko orokorrari buruzko aurreikuspen


SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




positiboek lagunduta.

Euroguneko lau herrialde nagusietan, sentimendu ekonomiko baikorra hauteman da. Hazkunderik handiena Italian gauzatu da, aurreko hilabetearekin alderatuta 11 puntu egin baitu gora eta 115,8an kokatu da. Ondoren, Frantzia (+5), Alemania (+3) eta Espainia (+2) daude. Horietan guztietan, indizearen atal guztiek hobera egin dute, batez ere zerbitzuen konfiantzari dagokionez. Hala ere, kontsumitzaileen konfiantzak zeinu negatiboari atxiki dio ekonomia horietan, eta Alemanian eta Frantzian ikur negatibo hori txikizkako merkataritzara ere hedatzen da.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Iturria: Europako Batzordea.


ENPLEGUARI BURUZKO IGURIKIMENAK

Lan merkatuari buruzko igurikimenek hobera egin dute European

ENPLEGUAREN IGURIKIMEN INDIZEA
EUROGUNEA

MAIATZEKO DATUA

110,1




Europako Batzordeak egiten duen enpleguaren igurikimenean adierazleak beste urrats bat eman du baikortasunera itzultzeko prozesuan. Hala, maiatzean 110,1eko mailan kokatu da, bi urte eta erdiko baliorik altuenean. Adierazle horrek hon-
do jo zuen pandemiaren hasieran eta hurrengo hilabeteetan indartsu suspertuko zela zirudien arren, ondorengo kutsatze olatuen etorrerak bila-
kaera geldiarazi zuen 2020ko azken hilabeteetan


eta 2021eko lehen hilabeteetan. Kurbaren joerak pentsarazten du oraingoan hedapen eremuan finkatuko dela.

Herrialdeka, Alemaniaren adierazlea 107,3 puntu-
koa da, apirileko datuekin alderatuta ia hiru pun-
tuko hobekuntza izan baitu. Bestalde, Frantziak
aurrerapen esanguratsua izan du, 101,2 izatetik
105,6 izatera igaro baita. Bi herrialdeetan, indizea
euroguneko batez bestekoa baino txikiagoa da.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ALEMANIA




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. FRANTZIA




Hobekuntza orokorreko prozesu horretan, Espainia da salbuespena, indizeak apur bat behera egin baitu maiatzean. Hala, aurreko 104,9 emaitza bikaina 102,7 da orain, azken hilabeteetako goranzko joera etenda.

Aitzitik, Herbehereek suspertzen jarraitu dute, eta enpleguaren arloan baikortasun handiena duten herrialdeetako bat dira, 110,0 puntuko balioa baitute, Europako batez bestekoaren ildotik.


ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ESPAINIA



ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. HERBEHEREAK




ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. BELGIKA



Belgikak irudi ona eman du, baina maiztzeko datua apirilekoaren oso antzekoa da. Hala, orduko 106,5etik gaur egungo 107,3ra igo da, nahiko aurrerapen mugtua baita.

Azkenik, Italiaren kasua da une honetako hobekuntza handiena erakusten duena, apirilean 102,5eko maila apalean egotetik maiatzean 111,5ean kokatzera igaro baita, euroguneko herrialde nagusien artean emaitza baikorrena duela agerian utziz.

ENPLEGUAREN IGURIKIMENAK. ITALIA




Iturria: Europar Batzordea.

EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Etorkizuneko bilakaera ekonomikoak pandemiaren mende jarraitzen du

EUOPAR BATASUNAREN BPGA Urte arteko aldakuntza tasa



2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Udaberriko txostenean argitaratutako Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera, Europar Batasunaren hazkundea %4,2 izango da 2021ean eta %4,4, berriz, 2022an. Euroguneak %4,3ko eta %4,4ko aldaketa izango du urte horietan, hurrenez hurren.


Aurreikuspen horiek baikorrak dira aurreko txostenean argitaratutakoak baino. Eszenategi positiboago horren atzean hainbat faktore daude: jarduera global handiagoa, merkataritza fluxu dinamikoagoak eta, bereziki, Europako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana bultzatzea. Hala ere, Europako herrialdeen artean alde handiak ikusiko dira suspertzeko ibilbideetan.

BPG. EUOPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Europar Batasuna	-6,1	4,2	4,4	+0,1	+1,4
Eurogunea	-6,6	4,3	4,4	+0,1	+1,4
Alemania	-4,9	3,4	4,1	-0,1	+1,5
Belgika	-6,3	4,5	3,7	+0,4	+0,2
Espainia	-10,8	5,9	6,8	+0,5	+2,0
Frantzia	-8,1	5,7	4,2	-0,1	+1,1
Italia	-8,9	4,2	4,4	+0,1	+1,6
Herbehereak	-3,7	2,3	3,6	+0,1	+1,7
Portugal	-7,6	3,9	5,1	-1,5	+1,6
Irlanda	3,4	4,6	5,0	+1,7	+2,4
Grezia	-8,2	4,1	6,0	-0,9	+2,5
Austria	-6,6	3,4	4,3	-0,7	+1,8


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera, 2021eko eta 2022ko hazkunde ekonomikoak lotura zuzena du pandemiaren bilakaerarekin. Izan ere, txertaketa prozesuaren arrakastak eta gobernuek murrizketak kentzeko izango duten azkartasunak ekonomiaren joera baldintzatuko dute. Hipotesiak izan dira 2021eko bigarren hiruhilekoan mugigarritasunari eta gizarte jarduerari jarritako mugak lasaitzea eta urtearen bigarren erdian txertoen inokulazioan aurrerapen nabarmena egitea.

2022rako, birusari lotutako arriskuak aurreikusten dira oraindik, adibidez, aldaera berriak. Hori dela eta, oraindik ere onartzen da neurri murriztaileak egongo direla Coviden hedapena mugatzeko.

LANGABEZIA TASA. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2020	2021	2022	2021	2022
Europar Batasuna	7,1	7,6	7,0	-1,0	-1,0
Eurogunea	7,8	8,4	7,8	-1,0	-1,1
Alemania	3,8	4,1	3,4	+0,1	-0,4
Belgika	5,6	6,7	6,5	-0,3	+0,3
Espainia	15,5	15,7	14,4	-2,2	-2,9
Frantzia	8,0	9,1	8,7	-1,6	-1,3
Italia	9,2	10,2	9,9	-1,4	-1,2
Herbehereak	3,8	4,3	4,4	-2,1	-1,7
Portugal	6,9	6,8	6,5	-0,9	-0,1
Irlanda	5,7	10,7	8,1	+2,8	-0,6
Grezia	16,3	16,3	16,1	-1,2	-0,6
Austria	5,4	5,0	4,8	-0,1	-0,1

Iturria: Europar Batzordea.



Baikortasuna itzuli da Europara

Maiatzean zehar ezagututako informazio ekonomikoak ezaugarri komun bat izan du: baikortasuna. Izan ere, baikortasuna da Europako inguruneetan arnasten dena, ohiko adierazle aurreratuetan ikus daitekeenez. Berriro ere, **euroaren eremuko PMI konposatuak gora egin du, oraingoan 56,9 puntura, hots, azken 39 hilabeteetako baliorik altuenera**. Berriz ere, manufactureren indarra nabarmendu behar da, 62,8an mantentzen baitira, errekorreko eremuan. Halaber, zerbitzuek suspertzen jarraitzen dute eta 55,1era iritsi dira, hau da, hedatze eremu betean daude. Txertaketa masiboen bidezko pandemiaren kontrolak jarduera berreskuratzea ahalbidetzen ari da. Era berean, euroguneko sentimendu ekonomikoak gora egiten jarraitzen du, eta maiatzean 114,5era iritsi da, adierazle hori osatzen duten sektore guztiak egoera onean daudela. Azkenik, ideia bera adierazten duen beste adierazle bat IFO alemaniarra da, apirilaren 96,6tik maiatzaren 99,2ra igo dena, azken bi urteetako daturik onena eta 2015eko egoerak adierazten duen 100eko balioetik oso gertu dagoena, hazkunde ekonomiko nabarmeneko urtea izan baitzen hura. Igoera txiki bat nabari da egoera ekonomikoari emandako erantzunetan (95,7), baina hobekuntza nabarmen handiagoa da igurikimenean atalean, orain 102,9koa baita.

EAERI dagokionez, **hileko honetan lan merkatuak urte arteko lehen igoera utzi digu Gizarte Segurantzako afiliazioan (%0,9), hamabi hilabetez jarraian behera egin ostean**. Hobekuntza txiki horrek mesede egin die bi generoei, eta zerbitzuetan eta eraikuntzan gauzatu da. Era berean, langabeziak %8,4 egin zuen behera apirilean, eta erregistratutako kontratuek %128,4 egin zuten gora. Kontuan izan behar da alderaketak 2020ko hilabeteekin egiten direla eta hilabete horietan murrizketak handiagoak izan baitziren. Beraz, espero izatekoa da datozen hilekoetan zenbait aldagairen aldakuntza tasak moteldu egingo direla.

Eraikuntzaren eta zerbitzuen arloetan ere datu oso positiboak ezagutu ditugu hilabete honetan. Esate baterako, **etxebizitza berriak eraikitze baimenak %86,6 igo ziren martxoan, urte arteko tasan**. Estatistika horrek gorabehera handiak izaten ditu, baina seriearen joera positiboa da, azken zortzi hilabeteetan gora egin baitu aurreko urtearekin alderatuta. Orobat, lehen hiruhilekoaren batuketak iazko epe berean emandako baimenak ia bikoiztu ditu. Ildo beretik, etxebizitzak erosteko hipoteken sinadurak ere gora egin zuen martxoan, %36,2, 2020ko datuekin alderatuta. Kasu honetan ere, hiruhilekoaren baturak 2020ko datua hobetu du. Informazio hori osatzeko, adierazi behar da hipoteka horietan eskatutako zenbatekoa aurreko urtekoa baino %33,1 handiagoa izan zela.

Bestalde, **apirilean saltoki handietako eta elikadura kateetako salmentak %10,4 igo ziren urtetik urtera**. 2020ko egoera bereziek azaltzen dute aurten elikagaien salmenta %10,2 murriztu izana (pandemia hasi zenean premiazko ondasunak pilatu ziren), eta gainerako produktuen, berriz, %160,6 handitu izana (funtsezkoak ez zirenez, denda asko itxita egon ziren orduan). Garrantzitsua da aipatzea jarduera horietako enplegua %2,3 igo dela aurreko urtearekin alderatuta. Zerbitzuekin lotutako beste estatistika bat txikizkako merkataritzan egindako salmenta da, apirilari dagokiona, %32,5 igo baitzen. Kasu honetan, bigarren igoera bizi jarraitua da, martxoaren %21,8aren ostean. Azpimarratu behar da estatistika horrek ere sektorearen okupazioa handitu dela seinalatzen duela, kasu honetan %1,6.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
BPG	2,2	-9,5	-3,2	-19,5	-7,5	-7,6	-2,9
Barneko azken kontsumoa	1,9	-7,5	-3,0	-15,4	-5,9	-5,7	—
Familien kontsumoa	1,8	-10,7	-4,8	-20,3	-8,5	-9,1	—
Administrazioaren kontsumoa	2,2	4,5	4,1	3,0	3,6	7,2	—
Kapital eraketa gordina	3,3	-11,6	-3,6	-23,0	-11,4	-8,4	—
Barne eskaria	2,2	-8,5	-3,1	-17,2	-7,2	-6,4	—
Esportazioak	0,4	-17,1	-7,5	-30,1	-15,5	-14,8	—
Inportazioak	0,4	-15,3	-7,2	-26,4	-14,8	-12,7	—
Lehen arloa	3,2	-9,3	3,5	-6,1	-7,2	-26,3	—
Industria eta energia	1,3	-11,8	-3,6	-26,7	-9,5	-7,2	—
Eraikuntza	3,4	-9,5	-2,7	-17,9	-9,3	-8,2	—
Zerbitzuak	2,5	-8,5	-2,8	-17,5	-6,5	-7,1	—
Balio erantsi gordina	2,3	-9,3	-3,0	-19,6	-7,4	-7,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,2	-10,4	-5,1	-18,4	-8,5	-9,6	—
Enplegua	1,5	-8,1	-2,8	-17,2	-6,2	-6,3	-2,1

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021				2021	2022
	I	II	III	IV		
BPG	-2,5	17,8	5,9	7,3	6,7	5,7
Barneko azken kontsumoa	-1,6	15,2	4,8	7,2	6,1	4,8
Familien kontsumoa	-3,3	19,1	5,3	8,6	6,9	5,8
Administrazioaren kontsumoa	4,2	4,0	2,9	2,5	3,4	1,9
Kapital eraketa gordina	-2,9	23,1	9,3	7,0	8,4	6,4
Barne eskariaren ekarpena	-2,0	18,1	6,0	7,3	6,8	5,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,5	-0,3	-0,2	0,0	-0,1	0,3
Lehen arloa	2,5	8,2	0,5	9,2	4,9	8,2
Industria	-2,1	27,2	5,1	7,0	8,3	5,3
Eraikuntza	-2,7	14,8	5,6	7,3	5,9	5,0
Zerbitzuak	-2,7	15,9	6,3	7,5	6,4	5,8
Balio erantsi gordina	-2,5	18,2	5,9	7,3	6,8	5,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-2,4	13,8	5,7	7,4	5,9	5,8
Lanaldi osoko lanpostuak	-2,5	14,3	3,4	4,4	4,9	3,2
Landunak (BJA)	-1,9	3,0	2,9	1,9	1,5	1,7

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
Confebask	7,2	—	Funcas	6,1	—
Hispalink (BEGren aldak.)	7,0	5,0	CEPREDE	5,9	5,8
Laboral Kutxa	7,0	—	BBVA	5,5	7,5

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
BPG	2,0	-10,8	-4,3	-21,6	-8,6	-8,9	-4,3
Kontsumo pribatua	0,9	-12,4	-6,1	-24,7	-9,3	-9,4	-4,0
Kontsumo publikoa	2,3	3,8	3,5	3,3	4,0	4,5	3,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,7	-11,4	-5,1	-24,3	-9,0	-7,2	-4,2
- Aktibo finko materialak	2,7	-13,3	-6,8	-27,9	-10,0	-8,3	-5,2
- Eraikuntzan	1,6	-14,0	-6,3	-25,4	-12,5	-11,5	-12,5
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	-13,0	-8,0	-33,3	-6,9	-4,2	5,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,6	-1,7	3,6	-5,5	-3,7	-1,2	0,6
Nazio eskaria (ekarpena)	1,4	-8,8	-4,0	-18,4	-6,7	-6,2	-2,6
Esportazioak	2,3	-20,2	-5,8	-38,7	-19,8	-16,3	-9,5
Inportazioak	0,7	-15,8	-5,3	-32,6	-15,7	-9,4	-5,2

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	6,4	5,8	Intermoney	6,2	5,2
Axesor	5,2	5,9	Mapfre Economics	6,0	5,0
BBVA	5,5	7,0	Oxford Economics	6,0	6,5
CaixaBank	6,0	4,4	Repsol	5,7	5,2
Cámara de Comercio España	5,9	5,4	Santander	5,6	7,0
Cemex	5,5	7,0	Metyis	5,5	6,0
CEEM-URJC	5,9	5,5	Universidad Loyola Andalucía	5,8	5,3
CEPREDE-UAM	6,4	4,8	Consenso (batez bestea)	5,8	5,7
CEOE	5,4	6,0	Gobernua (2021-04)	6,5	7,0
Equipo Económico (Ee)	6,3	4,6	Espainiako Bankua (2021-03)	6,0	5,3
FUNCAS	6,0	6,2	Europar Batzordea (2021-05)	5,9	6,8
ICAE-UCM	5,6	5,8	NDF (2021-04)	6,4	4,7
IEE	4,8	5,7	Consensus Forecast (2021-05)	5,5	5,6

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
AEB	2,2	-3,5	0,3	-9,0	-2,8	-2,4	0,4
Txina	6,1	2,0	-6,8	3,2	4,9	6,5	18,3
Japonia	0,3	-4,7	-2,2	-10,2	-5,5	-1,0	-1,8
Kanada	1,9	-5,4	-0,3	-12,7	-5,3	-3,2	0,3
Europar Batasuna	1,6	-6,1	-2,7	-13,8	-4,0	-4,6	-1,7
Eurogunea	1,3	-6,6	-3,3	-14,6	-4,1	-4,9	-1,8
Alemania	0,6	-4,9	-2,2	-11,2	-3,8	-3,3	-3,1
Frantzia	1,5	-8,1	-5,5	-18,4	-3,5	-4,6	1,2
Erresuma Batua	1,4	-9,8	-2,2	-21,4	-8,5	-7,3	-6,1
Italia	0,3	-8,9	-5,8	-18,1	-5,2	-6,6	-1,4
Herbehereak	1,7	-3,7	-0,4	-9,1	-2,4	-3,0	-1,9

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2021EKO MAIATZA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	6,6	4,2	2,8	2,3	5,4	4,1
Japonia	2,8	2,6	0,0	0,5	2,9	2,7
Kanada	6,1	4,0	2,3	2,1	7,6	6,3
Europar Batasuna	4,0	4,2	1,7	1,4	—	—
Eurogunea	4,2	4,3	1,7	1,3	8,5	8,1
Alemania	3,3	4,1	2,2	1,6	5,9	5,5
Frantzia	5,5	3,9	1,3	1,1	9,0	8,8
Erresuma Batua	6,0	5,4	1,6	2,2	5,6	5,6
Italia	4,2	4,2	1,2	1,0	10,5	10,2
Espainia	5,5	5,6	1,5	1,2	—	—
Herbehereak	2,4	3,2	1,7	1,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.